



**Arartekoaren 2021R-1794-19 Ebazpena, 2021eko otsailaren 16koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen dio berrikeri dezala bere kargura bi seme-alaba adingabeko dituen emakume baten diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubidea ukatzen duen ebazpena. Eskubidea ukatzeko arrazoia izan zen emakumeari egokitu dakioken eskubide edo prestazio ekonomikoa erabili ez izana**

### Aurrekariak

1.-Herritar batek kexa bat aurkeztu zuen Arartekoan, ez baitago ados Euskal Enplegu Zerbitzuak (aurrerantzean, Lanbide) 2019ko ekainaren 17an emandako ebazpenarekin; horren bitartez, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea ukatu zitzaion.

2.-Lanbidek ukatzeko ebazpena arrazoi honetan oinarritu zuen:

*“147/2010 Dekretuaren 9.8 artikuluan ezarritakoa ez betetzea: Espedientearen izapidetzea amaitu aurretik titularrari edo bizikidetzaren unitateko edozein kideri legokiokkeen eskubide edo prestazio ekonomikoro baliaraztea. Espedientearen izapidetzea amaitu aurretik titularrari edo bizikidetzaren unitateko edozein kideri legokiokkeen eskubide edo prestazio ekonomikoro ez baliaraztea.”*

Hemen adierazitakoaz gain aipatu behar da arrazoi berarengatik, aurretik kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzat jo zela. Zehazki, 2017ko urriaren 23an.

3.-Gainera adierazi behar da ukatze ebazpena eman aurretik, Lanbidek interesdunari entzunaldi izapidetzea egiteko eskatu ziola, izan ere, erakunde horrek detektatu zuen goian adierazitako betekizuna ez zuela betetzen. Horri dagokionez, erakunde autonomoak eskatu zion aurkezteko “elikagaien pentsioa kobratu izanaren ziurtagiriak eta/edo epaiaren betearazpen luzapena”.

4.-Kexa idazkian adierazi zuenez, Lanbidek ez zituen bere kasuaren inguruabarrak behar bezala kontuan hartu. Hala, azaldu zuen zenbait eskari aurkeztu zituela bere seme-alaben mantenu pentsioa eskatuz. Zehaztu zuen eskari horiek guztiak alferrikakoak izan zirela, seme-alaben aita desagertuta baitzegoen.





Era berean baieztatu zuen aita ez zela sekula bere seme-alabekin bizi izan eta sekula ez zituela ordaindu haien mantenua, heziketa eta bestelako beharrak. Esan zuen bigarren umea jaiotzean bikote harremanak okerrera egin zuela eta elkarren arteko kontaktua hautsi zutela, eta, azkenean, bere aurkako adostasun gabeko dibortzio demanda jarri zuela.

5.-Kexagileak aipatutakoari dagokionez azaldu behar da espedientean jasotako dokumentazioan hauxe egiaztatu dela:

- a) Interesdunak adostasun gabeko dibortzio demanda egin zuela eta Gernika-Lumoko Lehenengo Instantziako eta Instrukzioko 2. epaitegiak 2013ko urriaren 9an horri buruzko epaia eman zuela. Epaia xedapen atalean demanda onetsi egiten zen orokorrean, eta adingabeko seme-alaben mantenu pentsio gisa hileko gutxieneko 250 euroko kopurua zehaztu zen, urtero gehituko zena KPIren prezioen aldakuntzaren arabera.
- b) Umeen aitak pentsioak ordaintzen ez zituenez, epaia betearazteko demanda egin zen ordaindu gabeko hilabeteengatik, hau da, 2011ko abendutik 2014ko otsailera arte (guztira 27 hilabete), hilabeteko 250 euroko kopuruan. Beraz, ordaindu gabeko zenbateko guztia 6.750 eurokoa zen, KPIren eguneraketak albo batera utzi gabe.
- c) 2018ko urtarrilean mantenu pentsioaren betearazpena handitzeko demanda berri bat egin zen, hau da, 2014ko martxotik 2018ko urtarrilera artekoa (guztira, ordaindu gabeko 47 hilabete). Betearazpen gehikuntza 11.750 eurokoa izan zen.
- d) 2019ko ekainaren 4an, eta ikusirik interesdunaren seme-alaben aitak mantenu pentsioa ordaindu gabe jarraitzen zuela, ez ordaintzeagatik epe berri bat sortu zen, 2018ko otsailetik 2019ko maiatzera bitartekoa. Horregatik, interesdunak pentsioaren betearazpena luzatzeko eskatu zuen, kasu horretan, 4.000 euroko zenbatekoan.
- e) Adostasun gabeko dibortzioaren prozeduran eta 58/2014 Familia Betearazpen Prozeduran agertu moduan, ordainketa egin behar zuen gurasoaren helbidea ez zen ezaguna, eta, beraz, jakinarazpenak ediktu bidez egin ziren.

6.-Arartekoak, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren (gaur egun Lan eta Enplegu Saila) lankidetzara eskatu zuen, idatziz. Idatzian, kexagileak deskribatutako egoeraren berri eman zuen, eta txosten bat bidaltzeko eskatu zuen, azalduz Lanbidekeren zergatik ulertu zuen ez zuela baliatu bere seme-alaben mantenu pentsioaren eskubidea. Idazki berean, Arartekoak alde aurreko zenbait gogoeta ere





jakinarazi zizkion sail horri, eta beharrezkoak ez diren errepikapenak saihesteko, hemen azaldutzat jo dira.

7.-Lankidetzan eskaerari erantzunez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko orduko zuzendari nagusiak txosten bat aurkeztu zuen erakunde honen erregistroan, eta bertan honako hau adierazi zuen:

*“XXX andreak (nazionalitate bikoitza du: espainiarra eta kolonbiarra), DSBEa jaso du, titular gisa, 2010etik (2010/RGI/008783) 2017ra arte.*

*2017/10/23an azkendu zitzaion laguntza, ez zituelako “bere eskubideak baliatu”, ez zuelako mantenu-pentsioa erreklamatu. Errekurtsoa jarri zuen (2018/REC/004365) 2017/REV/097721 zenbakiko berrikuspenaren aurka, eta Lanbideko zuzendari nagusi Borja Belandia Fradejas jaunak atzera bota zuen.*

*2018an, DSBEaren beste eskaera bat egin zuen (2018/RGI/016426), eta ukatu egin zitzaion, ez zelako urtebete igaro 2010/RGI/008783 espedientea azkendu zitzaionetik. Ebazpen horren kontrako errekurtso bat aurkeztu zuen (2019/REC/004879), eta ezetsi egin.*

*Arartekoak eskatzen duen informazioa XXX andreak 2019an berriro eskatutako DSBEaren espedienteari buruzkoa da (2019/RGI/RGI/002192).*

*Espediente hori ukatu egin zitzaion; izan ere, “espedientearen izapidetzea amaitu aurretik ez zuen baliatu titularrari edo bizikidetzaren unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro. Zegokion herrialdean prozesua abiarazi gabe zegoen”.*

*Ebazpen hori ikusita, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuen (2019/REC/00600), eta hori ere ezetsi zen; izan ere “aurkeztutako dokumentazioarekin, ezin da jakin 2010/RGI/008783 espedientea azkentzeko arrazoia zuzendu denik. Frogatu egin behar du bere eskubideak baliatu dituela 2018/01/24tik”.*

8.-Aipatu behar da orain dela gutxi, erakunde honek telefono bidez hitz egin duela kexagilearekin, jakiteko une honetan zein egoeratan dagoen, bereziki diru-sarrerak bermatzeko errentari dagokionez. Elkarrizketa horretan kexagileak esan zuen azkenean albo batera utzi zuela diru-sarrerak bermatzeko errenta aitortua izateko egiten ari zen ahalegina, izan ere, ez zekien zer gehiago egin zezakeen Lanbideko ondoriozta zezan bere seme-alaben mantenu-pentsiorako eskubidea baliatu zuela.

Aurreko guztia kontuan hartuz, azpimarratu behar da Lanbideren erabakiaren eraginpeko bizikidetzaren unitatea bost pertsona hauek osatzen dutela: Kexagileak,





bere bi seme-alaba adingabeek eta kexagilearen amak eta aitak (azken horrek Alzheimerra du).

9.-Hori esanda, beharrezkoak diren egitate eta zuzenbide elementuak daudela ulertzen denez, honako gogoeta hauek egiten dira:

### Gogoetak

Lehenengoa.- Hemen argitu behar dena da, ea egiazta daitekeen azaldutako gertakariak eta aplikatu beharreko araudia ikusirik, kexagileak ez zuela baliatu bere seme-alaba adingabeen mantentzeko eskubidea, Lanbidek ondorioztatu bezala.

Bigarrena.- Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren helburua da bazterkeria prozesuak edo egoerak bizi dituzten pertsonei eta familiei ezinbesteko gutxieneko bat bermatzea, oinarrizko premiei erantzun ahal izateko. Era berean, gizarte bazterketa, lan bazterketa eta bazterketa pertsonaleko egoerak arintzeko eta herritarren eskubideak baliatzeko beharrezko baliabiderik ez dutenei gizarteratzen laguntzeko helburua ere badu<sup>1</sup>.

Haren ezaugarrietako bat unibertsaltasun bokazioa da, eta horrenbestez, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak (aurrerantzean 18/2008 Legea) eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak (aurrerantzean 147/2010 Dekretua) horretarako ezartzen dituzten baldintzak eta betebeharrak betetzen dituzten pertsona guztiei aitortzen eta bermatzen zaie.

Hirugarrena.- 18/2008 Legearen 19.1.b) artikuluan ezartzen denez, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duenak derrigor baliatu behar du, prestazioak irauten duen bitartean, prestazioaren titularrari edo haren bizikidetzaren unitatea osatzen duen edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro. Berdina dago jasota 147/2010 Dekretuaren 12.1.b) artikuluan, eta 31. artikuluen lehenengo apartatuaren a) hizkian hauxe dago xedatuta: ebazpen judizialak jadanik onetsi dituen baina jaso ez diren eskubideen edo prestazioen kasuan, horiek baliatu direla ulertuko da "horiek eman behar dituen pertsonaren ez- betetzeari dagokion ebazpen judizialaren betearazpen intzidenteari hasiera eman zaiola egiaztatzen denean (...).

---

<sup>1</sup> Ikus Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen lehenengo artikulua.





Kasu honetan, Lanbidek, 2019ko maiatzaren 10eko ebazpenaren bidez, interesdunari eskatu zion aurkez zezala "mantendu pentsioaren kobratze ziurtagiriak eta/edo epaiaren betearazpen epearen luzapena". Ondoren, ekainaren 17ko ebazpenaren bitartez, interesdunak bere seme-alaben mantenu pentsioaren eskubidea baliatu duela egiaztatzeko aurkeztutako dokumentazioa ez zela nahikoa uste zuten, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskubidea ukatu zitzaion. Kasu honetan, erabaki hori hartzeko beste arrazoi hau gehitu zuten: "Dagokion herrialdean prozesua ez da hasi".

Laugarrena.- Egoera honetan, lehenik eta behin aipatu behar dena da 18/2008 Legearen 19. artikulua b) hizkian eta 147/2010 Dekretuaren 12. artikulua lehenengo apartatuaren b) hizkian ez dela adierazten zer den diru-sarrerak bermatzeko errentaren jasotzaileak eskubide edo prestazio ekonomikotzat jo behar duena. Alderantziz, Lanbideren 2017ko irizpideen agirian edo eduki ekonomikodun eskubideak baliatzeko agirian daude zehaztuta eskubide horiek, eta horiek erabiltzeko zenbait arau ere xedatzen dira.

Hala, bere seme-alaben mantenu pentsioari dagokionez, aipatutako dokumentuetan irakur daiteke diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak, mantenu pentsioaren eskubidea onartzen duen epaia eman denetik aurrera zenbatzen hasita bi hilabeteko epean hasi behar dituela zorpetutako zenbatekoak ordainduak izateko betearazpen izapideak. Era berean jasota dago demanda atzerrian jarri behar izateak ez duela salbuesten jatorri herrialdean mantenu pentsioa erreklamatzeko betebeharra.

Horri buruz, Arartekoak berretsi nahi du ez dirudiela zentzuzkoa horrelako erabaki garrantzitsu bat (diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskubide subjektiboaren ukatzea, hau da, xedetzat gizarte bazterketa egoeran dauden edo egoera horretan egoteko arriskua duten pertsonen behar oinarritzkoenak betetzea duen eskubidea) hartzeko oinarri gisa araua ezartzeko gidaliburu bat izan daitekeena hartu izana<sup>2</sup>.

Era berean, aurretik azaldu bezala, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunari eskatutako betekizuna (hau da, bi hilabetez ordainketarik ez egin ondoren bere seme-alaben mantenu pentsioaren betearazpena hasteari buruzkoa) ez da zuzentasunez egokitzen urtarrilaren 7ko Prozedura Zibilaren 1/2000 Legean xedatutakora (aurrerantzean, PZL), izan ere, 518. artikuluan xedatuta dago epai

---

<sup>2</sup> Ikus Arartekoaren diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria hobeto kudeatzeko proposamenak egitekoa, 2017, 77.or.





judizial batean oinarritutako betearazpen ekintzen iraungitze epea bost urtekoa dela<sup>3</sup>.

Bosgarrena.- Demanda ordainketa egin behar duen gurasoa bizi den herrialdean jarri behar dela zehazten duen betekizunari dagokionez, Arartekoak uste du horren inguruan zenbait kontu aurkaratu behar direla.

Lehenik eta behin, beharrezkoa da zehaztea PZLren 769. artikulua hiru guturaren apartatua xedatutakoaren arabera, gurasoak epai-barruti berean bizi ez badira, demandatuaren egoitzaren tokiko edo adingabearen bizilekuaren tokiko auzitegia izango dela seme-alaba adingabeen mantenuarekin lotutako kontuak ebazteko eskuduna, demandatzaileak hala aukeratuta<sup>4</sup>. Kasu honetan, interesdunak Gernika-Lumoko Lehen Instantziako eta Instrukzioko 2. epaitegia aukeratu zuen, horixe baitzen demanda jarri zuen egunean adingabeen bizilekuari zegokion epaitegia.

Bigarrenik, kexagileak egiaztatu zuen ez zekiela non zegoen bere seme-alaben aita. Ondorioz, PZLren 156. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, eskatu zuen ikertzeko demandatuaren bizilekua non zegoen, eta emaitzarik lortzen ez bazen, ediktuen bitartez betearazpen demanda jakinarazteko. Beraz, horri dagokionez ere baieztatu daiteke kexagileak zuzenbidearekin bat eginez jardun zuela.

Bukatzeko, abenduaren 18ko 252/2014 epaia ere aipatu behar da. Epai hori Gasteizko administrazioarekiko auzien 3. epaitegiak eman zuen eta hau ere dago bertan zehaztuta:

*“Egia da kasu honetan, eta 2003. urtetik aurrera, ez dagoela jasota kexagileak bere semearen aita aurkitzeko ahaleginik egin duenik hari hitzarmen arautzailean zehaztutako bere semearen 360,61 euroko pentsioa ordain dezala eskatzeko edo erreklamatzeko. Hala ere, egia da kexagilearentzako zaila edo ia ezinezkoa dela hori egitea, izan ere, azaldu du XXX desagertuta dagoela (...). Laburbilduz, ez dugu uste errenta ukatzeko adierazitako kausa hori bidezkoa denik, ia-ia ezinezkoa den betebeharrak bat betetzeko eskatzen baitaio” (FD3).*

<sup>3</sup> 518. artikulua. “Epai judizialean, arbitraje-ebazpenean edo bitartekaritza-akordioan oinarritutako ekintza betearazlearen iraungitzea. Epaian, auzitegiaren ebazpenean edo Justizia Administrazioaren letraduaren ebazpenean oinarritutako akzio betearazlea —transakzio judizial bat edo prozesuan, arbitraje-ebazpenean edo bitartekaritza-akordioan lortutako akordio bat onesten— iraungi egingo da, epaia edo ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo bost urteetan demanda betearazlea jartzen ez bada.

<sup>4</sup> 769.3. artikulua. “Seme-alaba adingabeak zaintzeari eta jagoteari buruzko prozesuetan, edo guraso batek seme-alaba adingabeen izenean beste gurasoari erreklamaturako mantenuari buruzko prozesuetan, eskuduna izango da gurasoen azken egoitza erkideari dagokion lehen auzialdiko epaitegia. Gurasoak epai-barruti berean bizi ez badira, demandatuaren egoitzaren tokiko edo adingabearen bizilekuaren tokiko auzitegia izango da eskuduna, demandatzaileak hala aukeratuta”.





Seigarrena.- Orain arte azaldutako guztia kontuan hartuz, Lanbidek zuzenbidea aztertzeko edo interpretatzeko gauzatzen duen lan exegetikoan errespetatu behar dituen mugak zeintzuk diren aztertu behar da.

Arartekoak beharrezkotzat jotzen du *contra legem* interpretazio debekuari dagokion jurisprudenzia doktrina aipatzea. Bereziki, manuen hitzez-hitzezotasuna argia denean eta interpretaziorik ezin daitekeenean egin (*in claris non fit interpretatio*; ez da *contra legem* interpretaziorik egin behar; guztiak, maiatzaren 26ko KAE 138/2005 FJ 5 eta bertan aipatutakoak). Era berean, Ararteko honek gogorarazten du arauen interpretazioak bat etorri behar duela aplikatu behar diren garaiko errealitate sozialarekin, batez ere, haren espirtu eta xedeari erreparatuta<sup>5</sup>. Beharrezkoa da azpimarratzea arau bat ezin dela interpretatu arau horren araudiaren edukira eta filosofiara egokitu gabe. Konstituzio Auzitegiak (Osoko Sala) urriaren 4ko 150/1990 epaian ezarri zuenaren arabera, "arau berezi bakoitza ez da elementu isolatua eta inkomunikatua zuzenbidearen esparruan; aitzitik, antolamendu juridiko jakin batean integratzen da, eta, haren baitan, eta hura informatu eta sostengatzen duten printzipio orokorren arabera, araudian dauden antinomia eta hutsuneak, benetakoak edo itxurazkoak, ebatzi behar dira<sup>6</sup>". Hala, Lanbidek, araua aplikatzen duenean, ez luke ahaztu beharko araua gizarte bazterketa egoeran edo egoera horretan egoteko arriskuan dauden pertsonen bizitzeko gutxienekoak dituztela bermatzeko onartu zela.

Zazpigarrena.- Edonola ere, kasu honetan, honakoak kontuan hartuz gero: a) adingabeen mantenu pentsioaren eskubidea zehazten duen dibortzio epaia 2013ko urriaren 9koa dela, b) mantenu pentsioa erreklamatzeko betearazpen ekintzaren iraungitze epea bost urtekoa dela, c) 147/2010 Dekretuaren 31.1.a) artikularekin bat eginez, mantenu pentsioaren eskubidea baliatutzat jotzeko nahikoa dela betearazpen intzidentea hastea, d) kexagileak hiru alditan eskatu duela mantenu pentsioa betearazteko, eta e) saiakera horietan guztietan ez duela ezer lortu berari egotz ez dakioken arrazoi bat dela-eta, egokituz jotzen da galdetzea zergatik Lanbidek ondorioztatu duen interesdunak ez duela baliatu bere adingabeko seme-alaben mantenu pentsiorako eskubidea.

Arartekoaren ustez, mantenu pentsioaren betearazpen demanda betebeharra bete ez duen gurasoaren jatorri herrialdean ezartzeko betekizunak ez ditu betetzen PZLren arauak, eta, kasu honen inguruabarrak aztertuz, betekizun hori ezartzea

---

<sup>5</sup> Ikus Kode Zibilaren 3. artikulua

<sup>6</sup> Ikus aipatutako epaiaren zortzigarren oinarri juridikoa.



neurritz kanpokoa da. Kontuan hartu behar da gutxienez jatorri herrialdean letratu bati notario ahalordea eman beharko litzaiokeela agiri hau legeztatzeko izapidearekin batera. Esfortzu gehigarri horrek are gehiago larriagotuko luke kexagilearen bizikidetzaren unitatearen egoera ekonomikoa. Eta, gainera, ez dakigu ziurtasunez betebeharrak bete ez dituen gurasoa jatorri herrialdean dagoen edo ez. Hala ere, Lanbidek ez du kontuan hartu demanda eskaria bete arren, emaitzarik ez duela jaso. Azken finean, eskakizun osagarria da, arrazoi gutxi duena, eta horretan oinarrituz justifikatu da diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskubidearen ukatzea.

Hori horrela, aztertu beharko litzateke ea betekizun hori eskatzeak betetzen duen Sektore publikoko araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 4. artikuluan administrazio publikoen esku-hartze printzipioei buruz xedatutakoa. Artikulu horretan haxe dago xedatuta: eskubide indibidualak edo kolektiboak gauzatzea murrizten duten neurriak ezartzen badituzte (...) edo jarduera bat egiteko betekizunak eskatzen badituzte, proportzionaltasun printzipioa aplikatu beharko dute eta murrizketa txikiena eragiten duen neurria aukeratu beharko dute, eta interes publikoa babesteko beharrezkoa dela arrazoitu eta lortu nahi diren helburuetarako egokia dela justifikatu beharko dute (...).

Zortzigarrena.- Gauzak horrela, guraso bakarreko bizikidetzaren unitatea duen kexagileari dagokionez (bi seme-alaba adingabeek, kexagilearen amak eta Alzheimerarekin gaixo dagoen kexagilearen aitak eta kexagileak berak osatutakoa), Arartekoak haxe adierazi nahi du: 2013. urtean, Haurren Eskubideen Batzordeak, Haurren Eskubideen Konbentzioa sinatu zuten estatuek hitzarmena betetzen duten jakiteko jarraipena egiteaz eta hura inplementatu behar den esparruetan behar bezala interpretatzeko orientabideak emateaz arduratzen den organoak, 14. Ohar Orokorra (ezartzen duena haurrak eskubidea duela beren interes gorena lehentasunez kontuan hartua izan dadin)<sup>7</sup> egin eta onartu zuela.

Dakizun bezala, ohar orokor honek beharrezko baldintzak zehazten ditu behar bezala aintzat hartzeko haurrak eskubideen titular gisa duen interes gorena, batez ere erabaki judizialetan eta administratiboetan, eta argitzen du, IV.A.1.b) puntuan, interes gorenaren printzipioarekiko errespetua hurrei zeharka eragiten dieten erabakietan eska daitekeela; hau da, ez bakarrik haiengana zuzendutako administrazio egintzetan, baizik eta ondorio zuzenak izan ditzaketen egintzetan baita ere.

<sup>7</sup> Nazio Batuak. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena. Haurren Eskubideen Batzordea. 14. Ohar Orokorra (2013), ezartzen duena haurrak eskubidea duela bere interes gorena lehentasunez kontuan hartua izan dadin (3. artikulua, 1. paragrafoa). [Linean eskuragarri]: [http://www2.ohchr.org/English/bodies/crc/docs/GC/CRC.C.GC.14\\_sp.pdf](http://www2.ohchr.org/English/bodies/crc/docs/GC/CRC.C.GC.14_sp.pdf)





Bestalde, aipaturiko batzordeak azpimarratu du kontzeptu hirukoitza dela adingabearen interes gorena:

- Eskubide substantiboa: hurrek beren interes gorena lehentasunezkatat jo dezaten duten eskubidea, ebaluatu egingo dena eta eztabaidatutako kontu baten gaineko erabakia hartzeko hainbat interes neurtzean kontuan hartuko dena, eta haur bati, haur jakin batzuen talde bati edo hurrei orokorrean eragingo dien erabaki bat hartu behar den aldiro eskubide hori beti aintzat hartzeko bermea. 3. artikuluko 1. paragrafoan ezarrita dago estatuek berez bete beharreko eta berehala aplikatu beharreko (berehalako aplikagarritasuna) betebeharra, auzitegietan aipa daitekeena.
- Interpreta daitekeen oinarritzko printzipio juridikoa: xedapen juridiko batek interpretazio bat baino gehiago onartzen baditu, haurren interes gorena modu eraginkorrean beteko duen interpretazioa aukeratuko da. Hitzarmenean eta horren hautazko protokoloetan ezarrutako eskubideek osatu dute esparru interpretagarria.
- Prozedurazko araua: haur jakin bati, haur jakin batzuen talde bati edo hurrei orokorrean eragingo dien erabaki bat hartu behar den bakoitzean, erabakiak hartzeko prozesuak erabaki horrek interesdun haurrengan/haurrengan edukiko dituen ondorio posibleen (aldekoak eta kontrakoak) balioztapena eduki beharko du barnean. Prozedurazko bermeak izan behar dituzte haurren interes gorenaren ebaluazioak eta zehaztapenak. Gainera, erabakien justifikazioak argi utzi behar du berriaz hartu dela eskubide hori kontuan. Ildo horretan, erabakia hartzea dagokien instantziek azaldu beharko dute nola errespetatu den eskubide hori erabakian; hau da, zer jo den haurren interes gorentzat, zein irizpidetan oinarritu den erabakia eta nola neurtu diren haurren interesak beste gogoeta batzuekin alderatuz.

Azken batean, haurren interes gorena kontuan hartzeak haurren beharrezan egoki neurtzea dakar. Hitzarmenak aitortutako eskubide guztiak erabat eta modu eraginkorrean gozatuko direla bermatzea dakar, bai eta bere garapen holistikoa bermatzea ere, haurren garapen fisiko, mental, espiritual, psikologiko eta sozial gisa hartuta.

Beraz, eskubide substantiboa da, interpreta daitekeen printzipio juridikoa eta prozedurazko araua. Horren arabera, haur bati eragingo dion erabaki bat hartu behar den bakoitzean, erabakiak hartzeko prozesuak erabaki horrek haurrengan





izan ditzakeen ondorioak (aldekoak eta kontrakoak) jaso beharko ditu barnean. Erabakien justifikazioak argi utzi beharko du berariaz hartu dela eskubide hori kontuan, eta hauraren interesak zaindu direla beste gogoeta batzuekin alderatuz. Honela jaso zuen Ararteko honek 2/2015 Gomendio Orokorrean, "Politika publikoetan adingabearen interes gorenara kontuan hartzeko betebeharra, bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman" izenburupean<sup>8</sup>.

Horri dagokionez, egokia dirudi gehitzea Nazioarteko Tratatu eta Akordioei buruzko azaroaren 27ko 25/2014 Legearen 31. artikuluan ezartzen dela nazioarteko tratatuek lehentasuna dutela kontrako barne-zuzenbideko arauen gainetik, eta lege horren 29. artikuluan argitzen dela nazioarteko betebeharrak betetzea agintari autonomikoei ere badagokiela<sup>9</sup>.

Hala ere, adingabearen interes gorenaren funtsezko izaera estatu mailan ere islatu da, zehazki, adingabearen babes juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoa 2. eta 3. artikuluetan, adingabearen interes gorenara barneratu eta garatzen baita, eta hori ezartzeko jarraibideak ematen baitira. Ildo horretan, 3. artikulua berariaz ezartzen du botere publikoen jarduketara nazioarteko araudi horretara egokitu behar dela. Eta, bestalde, Konstituzio Auzitegiaren arabera, oinarriko eskubideen interpretazioak "ezin du alde batera utzi itun horiek eta nazioarteko akordioek ezarritako berme organoek aurrera daramatena"<sup>10</sup>.

Aztertzen ari garen kasuan, adingabearen interes gorenara nahitaez errespetatu beharrak eskatuko luke Lanbideak, hartutako erabakiaren aurretik, behar bezala haztatzea erabaki horrek adingabearen bizitzan sortuko lituzkeen ondorioen larritasuna, hau da, bizikidetzaren unitateari baliabide ekonomiko bakarrak kenduta.

Bederatzigarrena.- Aurretik azaldutako guztiagatik, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailak ez zituen zuzentasunez jorratu kasu honetako berezitasunak kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubide subjektiboa aitortzea ukatu zionean.

Izan ere, kexagileak, adostasunik gabeko dibortzio baten ondoren, hiru aldiz eskatu zuen bere bi seme-alaba adingabekoentzako mantenu pentsioaren betearazpena.

<sup>8</sup> **Arartekoa.** Arartekoaren 2/2015 Gomendio orokorra "Politika publikoetan, eta bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman, adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharrari" buruzkoa. [Linean eskuragarri]: [https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0\\_3662\\_3.pdf](https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_3662_3.pdf)

<sup>9</sup> Ikus, alde horretatik, Konstituzio Auzitegiaren 87/2019 Epaia, ekainaren 20koa, 7. O.J.

<sup>10</sup> Ikus, alde horretatik, Konstituzio Auzitegiaren 81/1989 Epaia, 2. O.J.; Konstituzio Auzitegiaren 116/2006 Epaia, 5. O.J.





Saiakera guztietan ez zuen ezer lortu seme-alaben aita desagertuta zegoelako, eta hori ezin egotz dakioke kexagileari.

Edonola ere, badirudi bete zituela horri buruzko arau aurreikuspenak, eta baieztatu duenaren arabera, Lanbiden ziurtagiriak aurkeztu zituen. Hala ere, Lanbidek ondorioztatu zuen interesdunak ez zuela bere seme-alaba adingabeen mantenu pentsioaren eskubidea baliatu, eta erabakia arrazoitzeko beste elementu bat gehitu zuen: demanda jatorri herrialdean jartzeko betebeharra, Lanbideren 2017ko irizpideen agirian xedatutakoarekin bat eginez.

Arartekoaren ustez, azken betekizun hori neurritz kanpoko eta soberakoa da, eta ez ditu betetzen administrazio publikoen jarduketa irizpideak arautu behar dituzten printzipioak. Gainera, Lanbideren exegesi lanak muga batzuk ditu, horien artean, zalantzarik gabe, Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema arautzen duen araudiaren muina eta xedea errespetatzea, baina baita ere ordenamendu juridikoa osatzen duten gainerako arauak errespetatzea.

Azkenik, Arartekoaren ustez, ezin da alde batera utzi bizikidetzaren unitatea kexagileak, haren bi seme-alaba adingabeek eta kexagilearen amak eta aitak (azken horrek Alzheimerra du) osatzen dutela, eta horiek diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioak dituztela diru sarreren iturri bakar gisa. Azken alderdi hori behar bezala aztertu behar zuen Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, erabakia hartu aurretik.

Azken batean, ondoriozta daiteke Lanbidek gomendio honetan helarazitako alderdiak aintzat hartzeak kasu honetako inguruabarretara hobeto egokitzen den ebazpena ekarriko zukeela.

Horregatik guztiagatik, eta erakunde hau sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11.b) artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Arartekoak honako gomendio hau egiten dio Lan eta Enplegu Sailari:





## GOMENDIOA

Azaldutako guztia kontuan hartuz, kexa honen xede den espedientea berrikusteko eta kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubidearen ukatzea berriz ere aztertzeko, izan ere, berari edo bere bizikidetzaren unitateko kideei egoki dakizkiekeen eskubide edo prestazio ekonomiko guztiak baliatu baititu.

